



EUSKAL UTOPIKOEI SARIA

MONZON/ GANUZA

SARIA

Telesforo Monzonen heriotzaren 40 urteurrenean, berak eta Josefa Ganuzak bezala, bere bizitzaren ardatz Euskal Herria, euskara eta euskal kultura izan duten herritarrak omentzeko saria jarri genuen abian Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak elkarlanean 2021. urtean.

Monzon-Ganuza sariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omendu nahi dira.



OLASO
DORREA
FUNDAZIOA



BERGARA
izan, bizi, ekin



Begarako
Udala

Telesforo Monzon eta Josefa Ganuzaren bizitza, Euskal Herria, euskara eta euskal kulturari eskainitako bizitza da.

1927 urtean, gazte zelarik, Telesforo Monzonek, abertzale bihurtu eta segidan euskara ikasi zuen. Orduetik aurrera, euskara eta euskal kulturaren sustapena bere jardunaren ardatz izango dira.

1935eko Martxoaren 24ean Josefa Ganuzarekin ezkondu zen eta orduetik aurrera ezin da baten jardunbidea bestearenarengatik bereizi. Telesforok Josefa izango du bidaide, eta biek euren bizitza osoan zehar, Euskal Herriaren alde lanean jardungo dute.

Bide horretan, Telesforo Monzonek, bere jardun politikoaz gain (Bergarako zinegotzi, Madrilen Gorteetako diputatu, EAJko GBBko Lehendakari, Eusko Jaurlaritzako Gobernazio Sailburu, Herri Batasunako mahaikide...), Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilari, Euskaltzaleak elkarteko kide, Eusko Ikaskuntzako VII Biltzarraren antolatzaile, eta Euskera eguna, Bertsolari-Festa, Abesti-Jai, Dantza-Ageri, Ikasle Bilkura, Antzerki eta abarren antolatzaile izango da. Poesia, antzerki eta artikulu egile gisa ere lan oparoa utziko digu, Josefa beti bidelagun izango duelarik.

Saria erabakitzeke unean, kontuan izaten dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehenetasuna, Nafarroak euskal historian izan duen garrantzia, edo eta batasunaren balioa.



MONZON/
GANUZA

SARIA

Era berean, euskal kulturgileak sustatzeko saria da hau ere:

Saria sinbolikoa da, eta Telesforo Monzon zein Josefa Ganuzaren balioak ordezkatzeko dituen obra artistiko bat izango da urtero. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da. Urtero artista berri bati eskainiko zaio, horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako eta euskal kulturgintza hauspotzeko ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraiki nahi dugu.



OLASO
DORREA
FUNDAZIOA



BERGARA
izan, bizi, ekin



Bergarako
Udala

OINARRIAK:

1. Monzon-Ganuzaren sariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrek omenduko dira.
2. Saria erabakitzeko unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehentasuna, Nafarroaren garrantzia euskal historian edo eta batasunaren balioa.
2. Saria urtero banatuko da, Teleforo Monzonen heriotzaren datan (Martxoak 9) edo inguruan. Sariduna nor den beranduenera bi aste lehenago emango da jakitera.
3. Saria erabakitzeko BATZORDE bat izendatuko da, Olaso Dorrea Fundazioko Patronatuak izendatutako hiru pertsona eta Bergarako Udalak izendatutako bi pertsonenez osatua.
4. Batzordea lau urtean behin berrituko da. Batzordekideek errepika dezakete mandatua.
5. Batzordeak, urtero, urte horretako urtarrilaren 31erako erabakia izango du saria nori eman, batzordeko edozein kideek aurkezturiko izenen artean. Erabakitzeko unean lehen artikuluan aipatutako irizpideak izango dira kontuan.
6. Saria sinbolikoa izango da, eta Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren balioak ordezkatzeko dituen obra artistiko bat izango da. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da.
7. Urtero artista berri bati eskainiko zaio saria diseinatzeko aukera, horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraikiaz.
8. Batzordea izango da artista eta honen obra aukeratuko duena.
9. Euskal artista berriak bere obraren berri batzordeko kideei emateko Olaso Dorrea Fundaziora zuzendu beharko dira, saria eman aurreko urteko abenduaren 31a baino lehen.
10. Obra artistikoa ordaindua izango da, orotara, 3.500 euroko diru kopuruarekin.
11. Sari ematea Bergarako herrian burutuko da.



MONZON/
GANUZA
SARIA



OLASO
DORREA
FUNDAZIOA



BERGARA
izan, bizi, ekin

